



# Aurkibidea

Aurkibidea .....	Iritzia: Santakruzak.....	2
Elkarrizketa .....	Ion Beloki .....	3
Herriko berri: bai ote? .....	Gezurra ala egia?.....	4
Sortzen .....	Tutankamonen piramide beldurgarria .....	5
Sortzen .....	Igor sukaldaria.....	6
Jarri bertsoa.....	Asmakizunak, lagunak.....	7
Bertatik bertara.....	Sorginen zubia .....	8
Jokuak.....	Sugea, azeria eta oiloa, eta cluedo.....	9
Kritika .....	Irakurri, entzun, ikasi .....	10
Denborapasa .....		11
Komikia .....	Kontzertua .....	12

**Argitaratzailea:** Andoaingo Udala (Euskararen Normalkuntzarako Lansaila).  
**Zuzendaritza-kontseilua:** Udal Euskara Zerbitzua eta Aita Larramendi, La Salle-Berrozpe eta Ondarreta ikastetxeak. **Ko-laboratzaileak:** Aita Larramendi, La Salle-Berrozpe eta Leitzaran ikastetxeetako ikasleak. **Ekoizpena:** Erroitz, b.m. **Inprimategia:** Sortu. S. Coop. Lege Gordailua: SS-216/97 ISSN: 1137-4195

**OHARRA:** Andoaingo hiru ikastetxeetako lehen hezkuntzako ikasleak dira aldizkari honetako idatziak eta ilustrazioak egin dituztenak. Aldizkarian argitaratutakoaren erantzukizuna, beraz, idazleena. Hori horrela, bada, argitaratzaileak eta zuzendaritza-kontseiluak ez dute zertan bat etorriarik argitaratutako esanekin eta iritziekin. Zerbaki hau argitaratzeko Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak dirulaguntza eman du.

## Iritzia

**A**pirilaren 30ean, asteartean, eskolatik atera eta ikasleek prestatutako pregoiak entzutera abiatu ginen. Hortik aurrera festak hasi ziren.

Pregoiak eta bertsoak entzun eta gero txokolatea edan genuen.

Gure ustez barrakak ondo egon dira, beharbada garesti xamarrak eta hobeto egongo litzateke merkeagoak balira, noski.

Kontzertuak ere gure gustokoak izan dira.

Buruhandiak, zer esanik ez, bere lana betetzen. Gainera guk probokatzen genien eta gero oso fuerte ematen ziguten.

Larunbatean Kale Nagusian mahai batzuk jarri zituzten eta bakoitzak eramandako janariarekin bazkaldu genuen. Arratsal-



dean apar-festa zegoen baina hotza zela eta, bertan behera gelditu zen.

Guretzat txarrena alkohola-ren kontua izan da. Gauetan txoznetan alkohola adin gabeko-ei ere ematen ziguten, ez zegoen kontrolik. Gero goizetan kalean edari eta pixa usaina zegoen. Igandean, festen azken eguna zela, barrakatan mozkor bat ibi-

li zen. Azkenean Ertzainak etorri ziren. Batzuk ere kexatu dira gauetan musika altuegia zegoelako. Baina festak, festak dira!

Dena dela, hau izan ezik, guk oso ondo pasa dugu lagunekin eta hurrengo urtekoen zain gaude. GORA SANTAKRUTZAK!

**Ondarreta ikastetxea**

# Ion Beloki

## Urduri jartzen al zara kontzertu bat baino lehen?

Ez. Ohituta nago.

## Noiz hasi ziren “Ingo al deu” taldean abesten?


2009ko urrian. 3 urte eta erdi igaro dira.

## Noiz hasi zinen musika munduan?

Panderoa jotzen 10 urterekin hasi nintzen.

## Zein izan da zure lehenengo abestia?

Taldeko lehenengo abestia “Ingo al deu” abestia izan zen.



## Zein izan da zure ustez taldeko abestirik onena?

“Rosa-Rosa” izan da arrakasta gehiago izan duen abestia.

## Musikaz gain zer gehiago gustatzen zaizu?

Pilotan ibiltzea, bertsolaritza, mendian ibiltzea, lagunekin egotea...

## Zer iruditzen zaizu herriko festetan jotzea?

Oso ondo, oso gustura egon ginen giro ona zegoelako.

## Txikitan jotzen al zenuen instrumenturik?

Panderoaz gain ez nuen ezer gehiago jotzen.

## Zein izan da abestu duzun lekurik onena?

Andoaingo Bekoplaza.

## Zenbat pertsona zarete taldean?

Soinu teknikoarekin 7.

## Zer egiten duzu egun normal batean?

Lanera joan, lana eta gero laneko lana egin, bestela taldearekin esaiatu.

## Zenbat kontzertu egin zenituzten iaz?

57 gutxi gorabehera.



La Salle  
Berrozpe  
6. maila



## Okindegi berria

Zumea plaza parean eraiki dute okindegi berri bat, Tahona izena du. Jendez gainezka egoten da ogia erosteagatik kafe bat oparitzen dutelako. Bost euro baino gastu handiagoa egiteagatik Lamborghini berri baten zozketan parte hartuko duzu, lau hilabetetik behin egingo da zozketa.

## Ikastola berria



Kilometroan jasotako diruarekin Aita Larramendi Ikastola handitzen ari dira. Eraikuntza berri honetan zortzi gela izango ditugu. Orain arte daukagun gela kopuruarekin ez da nahikoa matrikulatuta dagoen herritarrentzat. Ikastolan izena eman duten ikasle guztiek leku aproposa edukiko dute ikasteko eta ondo pasatzeko.

## Extralurtarrak

Extralurtarrak Andoainera etorriko dira. Aita Larramendi Ikastolako ikasleen etxetan egongo dira hilabete batean zehar. Oso txintxoak direnez eta izen barregarriak dituztelako, inork ez die beldurrik. Plutonekoak dira eta bakoi-tzak azalaren kolorea desberdina du. Ez dakite euskaraz, gure hizkuntza ikastea datoz, mimika bidez oso ondo ulertuko gara.

## Atrakzio parkea

Andoaingo udaletxeak, 2020rako munduko atrakzio parkerik handiena egiteko asmoa du Buruntzan. Gaur egun harrobia dagoen lekuan egingo omen dute parkea. Bertan edukiko ditugu: noria, tonbola, “tiro pitxon”, ohe elastikoak, “autotxoak”, dardoak, eskalada egiteko guneak... Herritarrentzat dohainik izango dela esaten ari dira.

## Euskaldunak 100 urte

Euskalduna futbol taldeak 100 urte egiten ditu aurten. Antolatutako ekintzen artean, bere garapen osoan zehar, Realean jokatu izan zuten jokalaria bertan egotea zen. Horretaz gain, beste hainbat eta hainbat ekintza ere antolatu dituzte.

## Zorionak Urki!

Urki dantza taldeak 25 urte bete ditu, duela hilabete eskas. Ekitaldi ezberdin asko antolatu zituzten. Batetik, Basteroko emanaldia egon zen eta bestetik, goiko plazan ere, jende guztiarentzat irekia zen dantzaldia antolatu zuten. Zorionak eta segi lanean, beste hainbeste urte eta gehiago ospatzeko.

## Liztor asiarrak inguruan

Liztor asiarra arriskutsua da oso. Alde batetik, bertako erleak hil eta jan egiten dituelako. Ondorioz, zuhaitzak hil egingo lirateke eta oxigenoa garbituko ez litzatekeenez, gizakioi ondo arnastea kostatuko litzaiguke. Beraz, kon-tuz liztor asiarrekin!

Aita Larramendi Ikastola | 6. maila

# Tutankamonen piramide beldulgarria

**B**azen behin Beñat izeneko mutikoa sei urte zituena. Abenturak gustatzen zitzaizkion, oso ausarta zen, azkarra ere bai eta trebea zen kiroletan. Ilea marroia zuen, begiak bezala, belarri txikiak zituen sudurra bezala, ahoa polita zuen eta gelako altuena zen. Bazuen lagun bat Ramon izenekoa. Ramon baldarra eta alferra zen, hala ere, oso azkarra zen eta arranoak baino ikusmen hobea zuen eta korrika geopardoak baino azkarra go egiten zuen. Lagun onak ziren biak. Beñat andereñoa bezain altua zen eta Ramon inurria bezain txikia. Beñatek esaten zuen 26 urterekin Egiptora joango zela eta Ramonek erantzuten zion berarekin joango zela.

Beñatek, 26 urte zituenean Ramoni deitu zion:

–Ramon lagunduko al didazu Egiptora joan eta piramide barrura sartzen?

–Bai lagunduko dizut, aireportuan elkartuko gara!

Aireportuan hegazkinean sartu ziren eta bost ordu geroago, Tutankamo-

nen piramidean, Beñatek eta Ramonek zulo bat egin zuten. Barrura sartu eta lehenengo tranpaz Ramon konturatu zen lurlean, karratuak zeudelako. Beñatek harri bat bota zuen eta harri erraldoi bat erori zen. Orduan, harriaren gainetik salto egin eta jarraitu egin zuten. Geroxeago, Beñatek jauregi bat bezain luzea zen pasiloaren hasieran karratu bat zapaldu eta paretak txikiagotzen hasi ziren. Orduantxe Beñatek Ramoni eskua eman eta Ramonek geopardoaren abiaduran egin zuen korri, beste aldera iritsiz. Beste aldean palanka bat zegoen eta eman eta pareta ondo jarri zen. Jarraian, aurrera jarraitu eta altxorra ikusi zuten,

beraz, altxorra hartu eta piramidetik irten ziren poz-pezik.

Maiatzaren 2an Beñat eta Ramon altxorra zutela konturatu zirenean, itsasontzi bat hartu, itsas zabalera joan eta altxorra itsasora bota zuten, arazorik ez izateko. Harrez gero, ez zuen inork ikusi Tutankamonen altxorra eta Beñat eta Ramon poz-pezik bizi izan ziren.



Aita Larramendi Ikastola |  
3D | Xabier Ucin

# Igor sukaldaria

**B**azen behin Igor izeneko ume bat. Bost urte zituen eta Andoainen bizi zen. Ile marroia eta begi berdeak zituen, belarra bezain berdeak. Hankak eta besoak luzeak zituen, suga bezazin luzeak. Mutiko alaia zen, langilea, laguntzailea eta eskuzabala.

Igorrek amets bat zuen, handitan sukaldari izan nahiz zuen. Amets horrek urteetan iraun zuen. Batxilergoa amaitu eta gero, sukadaritza ikasten hasi zen. Ikastetxean, lehiaketa baten berri ematen zuen kartel bat irakurri zuen. Zalantzan zegoen apuntatu ala ez, eta ikaskide batek zirikatatu egin zuen, apustua egin zion: bietatik irabazten zuenak, liburu bat egin beharko zuen, beren errezetekin.

Lehiaketaren eguna maiatzean zen eta entrenatzeko denbora asko zuten, oraindik, apirilean zeuden eta. Igorren lagunak bazekien zer errezeta egin, arroza, oilasko-bularkia eta txorizoarekin. Igorrek, berriz, lentejak txorizoarekin. Nork irabaziko ote zuen?

Maiatza iritsi zen eta lehiaketa eguna baino egun bat lehenago, Igor bere errezeta prestatzen ari zen. Halako batean, behatz potoloa erre zuen.

–Nola hartuko dut parte bihar lehiaketan, behatza erreta badaukat?

Igorrek ezin zuen orain amore eman. Behatza erreta ere, parte hartzea erabaki zuen. Iritsi zen eguna, Igor oso urduri zegoen. Prestaketa lanetan hasi ziren, 45 minutu zituzten. Igorrek, zailtasunen bat izan arren, errezeta denbora barruan prestatu zuen.

Epaileek prestatutako jakiak probatu zituzten eta Igorren lagunari hiru bederatziko eman zizkioten eta Igorri, berriz, hiru hamarreko. Igorrek irabazi zuen, behatz erre eta guzti.

Igor, azkenean, poz-pez sentitzen zen. Ez apustua irabazi zuelako, arazoak izan arren, saiatu zelako, eta saiakera horrek saria izan zuelako.



Aita Larramendi Ikastola |  
LH 4D | Irati Irastorza



# Bertsoak



## ASMAKIZUNAK

Txuria da barrutik  
 horia kanpotik  
 ustelduta badago  
 beltza bietatik  
 Tximiniok jaten dute  
 nahiz ta usteldurik  
 zuhaitzetik datozte  
 Kanaria uhartetik.

Zer da?

Arropa oso ona  
 darama klasera  
 pixkat pijua eta  
 oso jatorra da  
 ondo erakusten du  
 bere mugikorra  
 burusoila da eta  
 bertsolaria da.

Nor da?

Irakasleak bere  
 oso lagun gara  
 honela sartzen dugu  
 kristoren txapada  
 Orain bere alderantz  
 zuen begirada  
 idazteko da eta  
 berde berdea da.

Zer da?

Animali politak  
 ta beti jolasten  
 oso koloretsuak  
 gorputza apaintzen  
 Oso onak dira ta  
 asko hitz egiten  
 beti daude kaiolan  
 sarritan abesten.

Zer dira?

Ondarreta ikastetxea | 5. maila

## LAGUNAK

Oso jatorra zara  
 eta pixkat gaizto  
 asko gustatzen zaizu  
 ta señor potato  
 Lagunak egitean  
 ez duzu oztopo  
 beti ematen duzu  
 barregure asko.

Eider, oso ona zara  
 eta lagun ona  
 lagun asko dituzu  
 hori ez da broma  
 Familiarekin ere  
 portatzen dakiena  
 lagun onak garena  
 da inportanteena.

Oso jatorra zara  
 eta oso ona  
 baita ere txukuna  
 gainera sakona  
 ta zu zara klasean  
 beti ondo dagona  
 denok izan nahi dugu  
 zure zoriona.

Oso jatorra zara  
 eta graziosoa  
 batzuetan gangarra  
 besteetan txintxoia  
 Futbola, saskia ta  
 duzu gustokoa  
 ikaskide alaia  
 Ondarretakoa.

Ondarreta ikastetxea | 6. maila




# Sorginen zubia

**U**daletxetik gora zoazen heinean, eskubialdean bide gorri bat ikusiko duzu. Bide gorria igaro behar duzu gora doan aldapa txiki batera iritsi arte. Bertan zaudelarik, bide horretatik mendian zehar igo. Aldapa asko ikusiko dituzu, baina zu beti aurrerantz joan behar zara tunel bat aurkitu arte. Tunel hori zeharkatu eta gero parke moduko leku bat ikusiko duzu. Hori ikustean, bide on eta egokitik zoazela esan nahi du.

Orduan aurrera joan inguruan aurkituko dituzun aldapei kasurik egin gabe, berehala baserri bat topatuko duzu eta bertako parketik dijoan bidean aurrera jarraitu. Ondoren ikusiko duzunez, beste baserri horren ondotik jarraitzen du bideak, beraz aurrera segi. Zubi batera iristean, zubia pasa eta tunel luze bat zeharkatu eta ateratzean gurutze bat ikusiko duzu eskubialdean.

Hiru bide dauden puntu batetara iritsiko zara :ezkerrekoa,eskubikoa eta aurrera jarraitzen duena. Eskubiko bidetik joan behar zara aparkaleku batera iritsi arte. Aparkaleku horretan aldapa bat egongo da, beraz hortik jaitsi, eskubirantz joan errekaraino eta hor zubi bat egongo da; Sorginen zubia.






# Jokuak

## SUGEA, AZERIA ETA OILOA

Joko honetan hiru talde osatu behar dira; sugeak, azeriak eta oiloak. Hiru etxe behar dira, azeriak etxe batean, sugeak bestean eta oiloak beste batean.

Oilok sugeak jaten dituzte, sugeek azeriak eta azeriek oiloak. Adibidez, oiloa suge bat harrapatzera joaten bada kontuz ibili behar du, azeri bat ateratzen bada oiloa harrapa dezakelako. Sugeak azeria harrapatzen badu, sugeak azeria bere etxera eraman behar du. Azeriek, sugeen etxean dagoen azeria salbatu behar dute eta etxean azeria ukitzen badute salbu dago.

Azeriak oilo guztiak harrapatzen dituenean jokua bukatzen da.



Ondarreta ikastetxea |  
Eider Iturriondobeitia



## CLUEDO

Joko hau detektibeen jokoa da eta bukaeran asmatu behar da zein den hiltzailea eta nola eta zerekin hil duen persona. Hau jakiteko jokoa zehar jokalariek elkarri egiten dizkiote galderak eta erantzunaren arabera zenbait aukera joaten dira baztertzen. Jokalariren bat ausartzen bada esatera izena eta ez badu asmatzen kanporatuta gelditzen da.

Cluedo jokoa eta arkatz batzuk behar dira jolasteko.

Guri joko hau asko gustatzen zaigu oso entretenigarria delako. Bestalde, euskara lantzeko erabili izan dugu eta oso interesgarria iruditu zaigu. Partida bakoitzak 25 minutu inguru irauten du. Espero dugu zuen gustukoa ere izatea.

Ondarreta ikastetxea | Irene Requejo, Maite Urruzuno



## Zer irakurri



**Liburua:** Bat Pat , Gauerdiko sorginak.

**Idazlea:** Aitor Arana.

**Oharra:** Soinuak eta ultra soinuak! Amanita sorgin gaiztoa Rebecca bahitu du eta...bere zerbitzaria izatea nahi du! Eskerrak Martinek Leok eta nik neuk ideia bat (ero samarra)izan dugun hura askatzeko eta dena berriro lehengora etortzeko...

## Zer entzun



**Izenburua:** Udako gau luzeak, Good time eta Calor de verano.

**Taldea:** Vendetta, Carly Rae Jepsen eta Kike Puentes Rober.

**Oharra:** Lehenengoak erritmoa du, bigarrenak dantza egiteko animoak ematen dizkizu eta hirugarrena alaia eta oso polita da.

## Zer ikusi



**Filma:** Iron Man 3.

**Zuzendaria:** Shield Nick Fury.

**Aktoreak:** Robert Downey, Gwyneth Paltrow, Rebecca Hall, Guy Pearce eta Ben Kingsley.

**Oharra:** Iron Man-ek, berriz ere mundua salbatzeko misio bat du. Baina oraingoan, beste Iron Man batzuen laguntzarekin borrokatuko du. Zer gertatuko da???



■ Santakruzak iritsi dira, barraka asko daude eta Zumea plazan urte honean joko asko egongo dira. Maiatzaren 1ean, Txiki krossa ospatu da. Festetan ondo pasatzea espero dugu!

■ La Salle Berrozpeko eskola parkea berritu dute. Orain patioa askoz hobea da!

■ Okindegi berri bat zabaldu dute Zumea plaza aurrean eta, oraingoz, arrakasta izan du.



■ Jendeak oraindik ez du txakur kaka jasotzen, eta nazkagarria da, benetan!

■ Bastero ondoan jendeak kotxea aparkatzen du eta ez du pasatzen uzten.

■ Zakar asko dago lurrean eta hau ez badugu gelditzen, herri osoa zikinduko dugu! Lagundu honen aurka!


La Salle Berrozpe | 6. maila

## Hizki zopa

Aurkitu Gipuzkoako 12 herriren izenak

K	J	M	L	A	R	E	T	I	M	A	L	O	B	O	P
U	T	B	I	D	Q	D	E	A	P	L	S	V	M	U	O
L	O	R	I	O	N	T	S	C	T	E	N	U	M	U	A
B	E	X	S	T	E	U	A	D	T	O	L	O	S	A	S
V	N	I	Y	M	N	Y	X	E	Y	E	A	N	Y	M	U
B	R	S	A	V	E	Y	A	Z	B	U	S	N	T	X	T
R	T	B	N	V	Y	O	I	S	Y	B	A	M	Y	A	C
B	I	B	D	Q	N	M	I	Y	T	E	R	O	K	L	P
E	C	R	O	M	Y	Z	C	T	E	M	T	V	T	D	B
T	N	U	A	D	U	N	A	N	R	B	E	C	R	E	M
R	Z	B	I	W	B	M	Y	I	R	M	L	I	A	T	Z
R	U	R	N	I	E	T	A	B	E	X	V	E	N	A	M
B	M	W	E	T	M	U	Y	A	N	B	R	U	Y	S	X
V	A	E	A	B	T	U	M	A	T	B	R	N	X	A	V
C	I	H	R	N	Y	A	Z	V	E	N	T	A	B	R	B
E	A	Z	B	T	D	N	U	I	R	M	E	B	N	R	N
E	B	T	N	P	O	Z	L	M	I	D	B	T	A	A	V
B	E	Z	T	N	U	A	F	M	A	N	E	B	T	A	C
G	B	E	A	S	A	I	N	N	R	A	N	Y	M	U	X
N	E	N	Y	I	K	A	B	S	G	J	F	D	E	B	A

## Osatu marrazkia



## Sudoku

	2			7			8
	5			9	4		2
	1			3			5
		6	1	5		4	
2		9				3	1
		5		3	8	6	
3			7				9
5			6	4			1
8			3				7

## Aurkitu bidea



Aita Larramendi Ikastola



# Kontzertua

Bazen behin neska bat eta Kontzertu batera joan nahi zen.

Sarrerak erostera joan zen. Baina ilara luze bat zegoen.



Neska, joan zen bere etxera oso tristea, baina bat-batean sarrera bat aurkitu zuen buruan.

Handik herrialde batzuetara ari zen bere sarrera. Neska ikusi zuen eta galdetu eion:



ixiki